

EGAN: Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Aldizkaria

Gillermo Etxeberria Ugalde

RSBAP. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

1.-Agurra.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, Toulousen egun hauetan ematen ari den ponentzien artean, *EGAN*-ek euskararekin izan duen konpromisoaren inguruan zertxobait adierazteko eskatu zitzaigunean, atsegina sentitu nuen ohiko mugetatik kanpo gure aldizkariaren berri eman ahal izateko parada eman zitzaidalako. Eta *EGAN*-ekin batera Euskal Herrian euskararen literatur inguruan eman den eta ematen ari den berpizte fenomeno interesgarriaren azalpen labur bat egitea ere bidezko iruditu zitzaidan.

Horregatik gaurko gure agurrak benetako agurra izan nahi du eta zentzu anitzekoa; adiskidantzazkoa alde batetik, gure Elkarteari dagokion bezala, eta agur errebindikatiboa, bestetik, elkarren errespetua aldarrikatu nahi dugulako.

Ospakizun honi dagokion bezala, guk ere gure aletxoak eskaini nahi diogu egunari. Gure ahotsean eta jarreran gure herriak zuei eta beste guztioi opa dion fraternitatea aldarrikatzen dugu. Egundak zailak dira gure herriarentzat, baina guk halere, "Euskalerrriaren Adiskidearen Elkartea"ren ohiturari jarraituaz, fraternitaterik sakonea opa dizuegu, mundu osoa bihotz bakarrean kabitzen dena eta denentzat pakea eta anaitasuna opa duena, baina bene-benetan eta benetakoa, auzokoa errespetatzen dakien fraternitatea, herri baten nortasuna errespetatzen dakiena, dialogatzen dakiena, behin betiko soluziobideak eraiki nahi dituen fraternitatea. Gizakiok denok,

anai-arreba gara, eta denok denoi behar diogu errespetua, norbanakoari eta kolektibitateari, inor inoren gainetik jarri gabe, errespetu osoz lekuan lekuko bizimodu eta ohiturak errespetatuko dituen. Gure herriak maite du eta maite nahi du, baina errespetatua izatea nahi du, bere nortasuna errespetatua izatea, bere hizkuntza, ohi-turak eta bizitzari buruzko filosofia.

2.- EGAN-en konpromisoa euskal literaturarekin.

Baina ez dezagun ahaz zertara igo garen estrado honetara eta dudarik gabe gure argumentu nagusia *EGAN* aldizkariak euskararekin izan duen konpromisoa da. Herri txiki eta hizkuntza minorizatu batean egiten den kritika literarioari begira osatutako aldizkari garrantzitsu bat. *EGAN* aldizkaria aipatzea gure hizkuntzak gerra ondoren eraman duen garapena isladatzea da hein batean.

EGAN 1948. urtean jaio zen garaia, garai beltza zen euskal munduarentzat. Gogora dezagun gudu zibilak berarekin euskal munduaren berpizkunde apurrari eman zion eraso eta triskantza. Gure idazlerik gehienak atzerriko bidea hartu zuten, batik-bat Amerikarantz eta bertan eman zen nolabaiteko euskararen landatzea, hein txikian izanik ere. Horren adibide dira, Buenos Aires-en 1942. urtean sortu zen *EKIN* argitalpen etxea, argitara eman ziren bizpahiru nobela liburu poesiak: Juan A. Irasturen *Joanixio*, 1946, *Bizia garratza da*, 1950, Eizagireren *Ekaizpean*, 1948 urtean eta Telesforo Monzonen *Urrundik*, 1945 eta *Gudarien Eginak*, 1947. Baina guztien gainetik, nere ustez Jokin Zaitegi izan zen, Karakas-en sortu zuen *Euzko Gogo* aldizkariak, 1.950. urtean izan zuen arrakasta eta testigantzarengatik. Idazle iheslarien plaza bihurtu zen *Euzko Gogo* urteetan zehar. Eta, muga barnetan beren lanak argitaratu ezin edota zail gertatzen zitzairen idazleena ere bai. *Euzko Gogo* izan zen garai batean, mugak klandestinoki pasa ondoren irakurtzen zen aldizkaria, arnas berri baten itxaropen.

3.- EGAN aldizkariaren sorrera eta garapena.

Garai zail haietan, Mitxelena jaunak, gerora euskararen bizitzan hain garrantzitsua gertatu den pertsonak, Irigarai jaunak Arruerekin batera sortu zuten gure aldizkaria. Gaztelaniaz eta euskaraz, elebiduna, beraz, 1948. urtean.

Haseran, diogun bezala, *EGAN* elebidun sortu zen eta poliki-poliki elebakar itzuli zen 1954. urtera iritsi baino lehen.

Hasiera bertatik ikus daiteke talde leial bat bere kolaboratzaileen artean. Lehen esandako fundatzaile izan ziren Arrue, Mitxelena eta Irigaraiz gain, Etxaniz, Etxaide eta Erkiaga.¹ Gerora idazle famatu izango diren beste zenbaitek ere kolaboratzen du bertan, halanola Mirande, Aresti, besteak beste.

¹ Kortazar, J.: *Literatura Vasca: Siglo II*, 109-110 or.

4.- Asmo berri.

Hasieratik bertatik, garaian egin zitekeen neurrian, izan zen *EGAN* aldizkaria euskal literaturaren konplizea. Urteak joan ahala, trantsizio garai hartan, euskal literatura katakunbetatik ateratzen ari zen zenbait autore lekuko. Gogora ditzagun Salvatore Mitxelena *Arantzazu euskal sinismenaren poema*, 1949, Jon Etxaideren *Alos-Torrea*, 1950, Nikolas Ormaetxea Orixeren *Euskaldunak* poemaren publikazioa, 1950, eta *Urte guziko meza-bezperak*, 1949. Horrez gain *Gero* eta *Kresala* liburuen berragiltapenak egin ziren 1954.ean. Kuliska Sorta sortu zen 1950ean eta bertan euskal liburuek aukera berria izan zuten argitaratzeko. 1954.ean aita Xanti Onaindiak *Mila Olerki eder* poesia bilduma paregabea argitaratu zuen. Ez ditzagun ahaz zenbait ordena erlijiosok ateratzen zituzten aldizkari eta egutegiak, *Arantzazu*, *Karmel...* Horieta gure iritzirako bereizi beharrekoak dira *Anaitasuna*, 1950, *Goiz-Argi*, 1959. Azpimarragarri gertatzen da garai hartan *JAKIN* aldizkariaren sorrera 1956. urtean. Frantziskotar ordenaren barnean argitaratzen ziren zenbait errebistetan, batetik, eta klandestinoki edota erdi klandestinoki sartzen zen *Euzko Gogo* eta gure *EGAN* aldizkariak eragin berezia izan zuten garai hartako gazteengan.

Poliki-poliki, euskal literatura bere burua azaltzen ari zen eta idazleak ugaltzen, zeregin horretan zenbait ordena eta seminariok parte garrantzitsua izan zutelarik, nahiz zailtasunak eta behatopak ikaragarriak ziren, baina ordurako, batzuek "diasporan", besteak muga barrutan hazia erein zuten ikarati baina, eraberean, ausarki.

1954. urtean, lurra landuagoa zegoela uste izan zuten *EGAN*-eko arduradunek eta, ondorioz, pauso berri bat eman zitekeela uste izan zuten. 1954.ean "Asmo berri"² izenez beren ametsak azalerazi zituzten. Aurrerantz eramango zuten bidearen berri ematen zuen idatzi hark:

1.- Eguneratutako aldizkari bizia, gaurkotasunezko albiste eta gaiak sartuaz:

"Eta biziakin ari geran ezker eta darabilgun izkuntza ere izkuntza bizia den ezker, gaiak ere biziak, gaurkoak nai genituzke".³

2.- Kultur maila on batekin modernitate, hau da euskara kultur maila gailurre-ra eramateko gogo eta irrika:

"Kalera begira ari nai dugu, baserrira begira baiño geiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi-ikasientzat".⁴

3.- Kalitatea gai askatasunarekin batera:

Argitaratzeko muga, aldizkariaren neurriaz gain, gaiak bakarrik ipiniko ditu".⁵

Beraz, aro berri bat hasi zen *EGAN*-en baitan, eta, dudarik gabe, lemazainak pa-

² Arrue, A, Irigarai, A, Mitxelena, L.: "Asmo berri", in *EGAN*, 1954, 2-4, 1-2 or.

³ *Ibid.*, ikus *Literatura vasca, siglo XX*, op. cit., 110 or

⁴ *Ibid.*, *ibid.*

⁵ *Ibid.*, *ibid.*

regabeak izan ziren, batik bat, gerora hainbaterainoko fruituak eman dituen Koldo Mitxelena.

Euskal mundua desertu izatetik baratz berri bat izatera pasatzen ari zen. Giro hartan, *EGAN* aldizkariak bultzada berria izan zuen "seitan biderkatuaz bere orrialdeak"⁶

Garai berri hau bi ataletan bereizten du Luis Mari Mujikak:

a.- Mitxelena, Irigarai eta Arrueren eskutik 1953etik 1983 artean emana.

b.- 1983 urtea geroztik, behin Irigarai eta Arrue hilda *EGAN*en erredakzioa, Mitxelenarekin batean Juan San Martinen eskuetan geratzen da.⁷

Aro horretan euskal literaturak eman ditu jauzi nagusienak, harik eta modernitateira itxaropenez eta fruituz betetako gunera iritsi den arte.

Gogora dezagun Euskaltzaindiak Arantzazun 1956. urtean egin zuen Biltzarra. Bertan zenbait idazlek beren bilketa-lana aurkeztu zuten, baina gai nagusia "hizkuntzaren etorkizuna" izan zen, hizkuntzarena hil-ala-bizikoa zela uste baitzuten. Hizkuntza praktikoa eta funtzionala nahi zen, hau da *normalizatu*a. Villasanteren hitzetan "literatura-izkuntza normalizatu, unifikatu, tink ezarria eta aldakaitz bihurtu". Bestela ezin baitzion gure hizkuntzak gaurko bizikerari aurre egin. Eraberean euskararen etorkizunari buruz mintzatu ziren Parisen 1956.ean "Euskal Batzarre Orokorra" deituan. Ingurune horretan garrantzi berezia izan zuen *EGAN* aldizkarian Mitxelenak egin zituen zenbait kritikak. Bere ustetan "euskal literaturaren tradizioa aintzakotzar hartzera" deitu zuen⁸, ereduak ere jarriaz belaunaldi berriek ikus zezaten nondik jo behar zuen gerora euskara normalizatuak. Funtzionaltasun horren aurkako arriskua ikusten zuen garaiko zenbait autoreengan.

60. hamarkadan sekulako aldaketak eta mugimenduak eman ziren euskal munduan. Orduan osatu zen nagusiki euskara batuaren inguruko plataforma, eta bertan pauso garrantzitsuak eman ziren euskal literaturan, halanola nobelan, poesian "lizardianismoaren gaintzea, sinbolismoa, post-sinbolismoa, poesia existentzialista, poesia soziala, erdisurrealismoa, espermentalismoa eta bestelakoez..."⁹ Euskal literaturak modernitateerantz eman zituen pauso guztiak izan zuten bere miraila *EGAN*-en. Autore berrien aipamenak azaltzen dira etengabe, halanola Atxaga, A. Lertxundi, Urretabizkaia, L. M. Mujika etab. luze bat.

EGAN aldizkariak bere esparrua bete du hutsegina gabe bigarren aro honetan. Orohar, honako alderdiak izan ditu nagusi:

⁶ Askoren artean: "1956: arte mugarri bat", in JAKIN, 25 urte euskal kulturaren, 1982, 21 zkia., 35 or.

⁷ Mujika, L.M.: "Eganen kondaira burbiletik (1948-1991)", 193 OR.

⁸ Jakin, ibid. 47 or.

⁹ Mujika, L. M.: Ibid., 186 or.

- 1.- **Literatur azterketak. Literatur kritikako azterlanak.**
- 2.- **Sorkuntza**, batik-bat olerki aldetik, Krutwig, Mirande, Nemesio Etxaniz...
- 3.- **Itzulpenak**, poesien, prosa, bai G. Mistral, García Lorca, Blas de Otero; frantsesetik Charles Baudelaireren *Les fleurs du mal* (Arestik egina), galizieratik, ingelestik...
- 4.- **Kontu-kontari**. Kontakizun eta narrazio laburrak, batik bat ahozketasuna hobetsiaz.
- 5.- **Adabakiak**. Denetarik, kondaira, nekrologia, pintura, artea, musika, gastronomia...
- 6.- **Bibliografia**. Liburuak. Liburu garrantzitsuenen erreseinak.
- 7.- **Antzerkia**. Garaiko antzerkiak, Labaienenak, Aresti, Lartzabal...

Esan daiteke *EGAN* aldizkariak beti isladatu duela euskal literaturaren hedadura. Egia esan *EGAN*ez hitz egitea Mitxelenaren euskarazko lanei buruz mintzatzea da. Mitxelenak euskaraz egindako lan garrantzitsuaren zati handi bat *EGAN* aldizkarian eman baitzen argitara. Duela ez asko "Euskal Klasikoak" deituak berriro argitara eman direnean, iturburu nagusia *EGAN* aldizkaria izan da. Euskal munduan gabiltzanok ondo dakigu Mitxelena jaunak izan zuen eta duen garrantzia, bere kritikak eta maisulanak zuten eta duten garrantzia. Ohore handi bat da lan horren zati handi bat gure aldizkarian argitara izana.

Ezin dugu ahaztu 1983. urtea geroztik *Juan San Martin* jaunaren lana. Aldizkariaren ardura trebeki eramateaz gain, etengabe agertzen dira bere lanak han-hemenka, pintura, artea, etnologia, literatura, kondaira, liburuen erreseinak, euskararen mundua...

1992tik aurrera.

Guri, Luis Mari Mujika eta neri 1992. urtean eman zitzaigun aldizkari hau aurrera ateratzeko enkargua. Urteak ziren Juan San Martin jauna Ararteko bezala Gasteizen lanean ari zela. Horren ondorioz, aldizkari hau erori samarra zegoen. Horregatik RSBAP/EAE-k erabaki zuen gure eskuetan uztea, bultzada sendo bat behar zuela uste osoa zuelako.

Geroztik urtero-urtero eta agindutako fetxetan agertzen da gure aldizkaria euskal literaturaren azokan.

Lehen esan dugunez, *EGAN*-ek esparru berdina eta garai berdina konpartitu du beste euskal literatur aldizkariekin batera. Horien dekanoa dela ere esan daiteke bera, 1948. urtean argiratzen hasi zenean, ez baitzegoen hegoaldeko euskal munduan besterik. 1950-1956 urteetan *Euzko Gogo*a aldizkariarekin batera. Gure eskutara iritsi zenean, baziren, eta badira, beste publikazioak, haien artean *Hegats* EIE-k argitaratzen duena. Baita ere *Jakin*, iparraldeko *Maiatza*, *Karmel* eta *Susa*, garran-

tzitsuenak aipatzearren. Abaniku horren barnean, ez da argi bereizi bakoitzaren esparrua, hau da, bakoitzak ez du zehatz alor konkretu bat landu besteetatik desberdindu duena. Agian *Maiatz* eta *Susa* izan daitezke sorkuntzaren alorrean gehien eza-gutuak izan direnak. *Hegatsek* denetariko artikuluak eta lanak publikatzen ditu, liburuen erreseinak, kritika lanak, poesiak, itzulpenak. *EGAN* aldizkariak ere antzeko gaiak lantzen ditu.

Haseratik iruditu zitzaigun azterketa literarioei eman behar geniola garrantzia bereziki. Gaur egun, tradizioari gehienbat jarraiki honako atalak bereizten ditugu:

1. - Azterketa literarioak.
2. - Sorkuntzak.
3. - Itzulpenak.
4. - Adabakiak eta
5. - Kritika eta erreseinak.

Gaur egun esan dezakegu *EGAN* aldizkaria euskal autore guztiei irekitako plaza dela. Nahi duenak idaz dezake bertan, nahiz, haseran bezala zenbait baldintza bete behar diren: lehenengo eta behin literaturaz mintzatzea, eta ondoren, kalitatea zaintzea. Batuaz argitaratzen ditugun arren lan gehienak, zenbaitetan, beharrak hala eskatuta argitaratzen dira dialektoetan, bizkaieraz, gipuzkeraz....

Esan bezala, gaur arte, euskal munduan ezagunak diren autore gehienak hartu du parte bertan, batez ere kritika literarioak egiterakoan.

Uste dugu euskal literatura gero eta sendoagoa aurkitzen den une honetan, esparru garrantzitsu bat betetzen ari dela gure aldizkaria literatur-kritika arloan. Literatur munduan sortzen diren lanak, bidezko dirudi kritikoen bahetik pasatzea, errazkeria eta lausengu interesatuetatik areago arituko direnak. Horko kokatzen dugu guk gure zeregina gerora ere.

